

EUNEIZ EZ

Agiria sinatzen dugun sindikatuok uko egiten diogu irabazi-asmoko EUNEIZ (European University Gasteiz) unibertsitate pribatua Gasteizen martxan jartzeko baimena emango dion lege-proiektuari. Lege-proiektuak Eusko Jaurlaritzaren oniritzia jaso zuen martxoaren 16an, eta orain, Eusko Legebiltzarraren onarpena behar du indarrean sartzeko.

UPV/EHUn lan egiten dugunok kezka handiarekin ikusten dugu, unibertsitate publikoari egindako diru-ekarpenak ez nahikoak diren bitartean, “unibertsitate” pribatuei gero eta erraztasun gehiago ematen zaiela eta gero eta diru publiko gehiago bideratzen zaiela. Honek guztiak ikasleek ordaindu behar dituzten tasetan, plantilla nahikoa ez izatean, irakasle eta ikertzaile batzuek pairatzen dituzten soldata eskasetan, ikerketa egiteko baliabide urriak izatean eta abar luze batean eragiten du.

Anitzak dira guztion dirua kudeatzeko ardura dutenek EUNEIZ ez babesteko arrazoiak:

- 1997tik hona unibertsitate ikasleen kopurua ez da aldatu, eta unibertsitate pribatuen kopurua, aldiz, etengabe handituz doa. Goi-mailako hezkuntza-eredu publikoaren aldeko apustua egin ordez, EUNEIZ bezalako proiektuek ordezkatzen duten hezkuntza-negozio eredia ari dira lehenesten. Unibertsitate pribatuek, EUNEIZ barne, elitismoa sustatzen dute eta herritarren jatorri sozio-ekonomikoaren arabera segregatzen dute.

- Euskal Unibertsitate Sistemak dauden titulazioak bikoiztu egingo ditu EUNEIZ-ek (Fisioterapiako Gradua, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua eta Masterra, Eduki Digitalen Ekoizpen eta Ekintzaitzako Gradua) aipatutako legean eskaintzaren garapena modu harmonizatuan egin behar dela jasotzen bada ere. Zentzu horretan, UPV/EHUREkin lehian sartzen da, ikasleak lortzeko zein Administrazioetatik datozen baliabideak eskuratzeko.

- EUNEIZ proiektua Kataluniako zenbait Unibertsitatetara atxikitako bi Zentrotan (EUSES eta ENTI) oinarritzen da, Unibertsitate izatera heltzen ez diren bi eskola alegia. Unibertsitate-eskolak deitu arren, unibertsitate izateko eskatzen diren ezaugarriak ez dituzte betetzen.

- Aurkeztutako dokumentazioak ez du EUNEIZ-ek kontratatuko dituen langileen lan-baldintzen berri ematen, ezta lan eginkizunak eta haien eskakizunen inguruko informaziorik ere. Unibertsitate pribatuetan ohikoa den moduan, lanaldi partziala eta behin-behinekotasun oso altua izango dela aurreikus daiteke.

- Era berean, ez du argitzen euskarak bere hezkuntza-planen barruan izango duen eragina edo presentzia. UPV/EHUn gaur gaurkoz graduak eta, are gutxiago, masterrak euskaraz osorik ikastea bermatuta ez dagoenean, EUNEIZ unibertsitate pribatu batean, irabazi-asma duena, elitista dena eta Euskal Herritik kanpora begira dagoena, euskararen presentzia are txikiagoa izango da.

Horregatik guztiagatik, proiektu honen onarpenak interes ekonomiko eta politikoei baino ez diela erantzuten argi adierazi nahi dugu. Guztion ongi-izatea eta aukera berdintasunak

alde batera utzi eta dirudun gutxi batzuei mesede egiten diela salatu nahi dugu. Ezin zaie karta zuririk eman akademia hutsak unibertsitate bihurtzen dituzten inbertsio-funtsetako diruarekin dopatutako enpresei. Unibertsitate elitista horiek titulazioak urrearen prezioan saltzeko makina bilakatzen dira.

EUNEIZ bezalako proiektuekin politikari batzuk (Gasteizko Udaletxearen eta Arabako Diputazioaren gobernukideak eta Eusko Jaurlaritzarenak) unibertsitate-sistema publikoaren desegitea ahalbidetzen ari dira, herritarroi bizkarra emanez. Horren adibide da, besteak beste, EUNEIZ egitasmoa Europako Next-Generation funts publikoak eskuratzeko programen artean kokatu izana Eusko Jaurlaritzak, 64 milioi euroekin, EHUri lotutako proiektuetarako eskatutakoa baino askoz diru kopuru handiagoa.

Euskal gizarteak, kalitatezko Unibertsitate Publikoa behar du, etengabe garatu eta behar berrietara egokitzeko gai izango dena, gure lege-esparru propiotik arautu eta bideratu behar dena. Euskal Unibertsitate publiko bat non langileek lan-baldintza duinetan lan egingo duten eta bere jatorrizko zentzua inoiz ahaztuko ez duena, alegia, herritarrei jakintza eta ezagutza ematea, edozein delarik ere haien jatorri eta maila sozial eta ekonomikoa.

Ez dugu mota honetako unibertsitate pribaturik behar; diru publikoak zerbitzu publikoak hornitzeko izan behar du. Honengatik guztiagatik ozen eta garbi EZETZ esaten diogu EUNEIZ-i.

Hezkuntza unibertsitario publikoaren defentsan, EUNEIZ geldiarazi!!!

LAB – STEILAS – ELA – CCOO – CGT/LKN – ESK

Ernai – UPV/EHUko Ikasle Kontseilua